

## Abian da ikerketa-ibilbidedun Master Ofizialetako Sariak 2015-2016

2016/02/24

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abian jarri du **2015-2016 Master Ofizialetako Sariak**. Lehiaketaren helburua da laguntzea doktorego bidean jartzen ikerketa ibilbidea aukeratu duten fakultateko masterretako ikasleak, eta sendotzea, bide batez, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko doktorego ibilbidea bera. Matrikularen ordaindutakoaren %100a berrekuratuko dute bi irabazleek.

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute fakultateko unibertsitate masterretan ikerketa ibilbidea hartu duten ikasle guztiak, eta saria irabaziz gero, **matrikulan ordaindutakoaren %100a berreskuratuko dute**. Lehiaketa honetan, **bi sari** banatuko dira.

Lehiaketan parte hartzeko baldintza da 2015-2015 ikasturtean, master ofizialetako ikerketa ibilbideko ECTS kreditu guztiak gaindituta izatea, Master Amaierako Proiektuarenak barne.

Deialdi honetako eskaerak eta gainontzeko dokumentazioa aurkezteko epea izango da **2016ko otsailak 23tik ekainak 3ra** bitartekoa.

Lehiaketaren oinarriak eta informazioa guztia: [Ikerketa-ibilbidun Master Ofizialetako Sariak 2015-2016. Oinarriak \(PDF\)](#).

Aurten, hamabi urte bete dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abian jarri zuenetik hirugarren zikloko ikasketen eskaintza; izan ere, 2003-2004 ikasturtean ireki zuen fakultateak doktoretza ibilbidea.



Tesi baten aurkezpena Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.